

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### LURRALDE OREKAREN ETA LURRALDE ANTOLAMENDUAREN SAILA

**171/2024 Foru Agindua, apirilaren 17koa. María Lourdes Miranda Lafuente bitarteko funtzionario izendatzea Añanako, Lagrango eta Haraneko Udalen elkarteko idazkari kontuhartzaile lanposturako**

2024ko apirilaren 10eko sarrera datarekin, Elkarteko presidentek María Lourdes Miranda Lafuente bitarteko funtzionario izendatzeko eskatu zuen, Añanako, Lagrango eta Haraneko elkarteko idazkari kontuhartzaile lanposturako, 2024ko apirilaren 16tik aurrerako ondorioekin.

Idazkari kontuhartzaile lanpostua hutsik dago, aurreko funtzionarioa kargutik kendu baita, berak hala eskatuta, 2023ko azaroaren 17tik aurrerako ondorioekin.

Espedientean jasotzen denez, 2023ko irailaren 20ko ALHAOn (136. zk.) iragarki bat argitaratu zen, lanpostu hori estaturako gaikuntza duen funtzionario batek behin-behineko izendapenaren, zerbitzu eginkizunen edo metaketaren bidez betetzeari buruzkoa, baina ez zen eskaerarik aurkeztu.

Udalak Eusko Jaurlaritzari eskatu zion estaturako gaikuntza duten funtzionarioen lanpostuak betetzeko lan poltsatik bitarteko bat izenda zezala. Espedientean jasota dago, halaber, Eusko Jaurlaritzako Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzaren 2023ko abenduaren 29ko datako ezezko erantzuna, ez baitzegoen horretan interesik zuen hautagairik.

Elkartek ez du elkarteko hiru udaletako karrerako funtzionario komunik, eta, beraz, ezin da udalen elkarteko lanpostua beteko duen aldi baterako izendapenik egin.

Lanpostua ezin zenez aurreko bitartekoen bidez bete, elkarteko lehendakariak hautaketa prozedura bat izapidetu du berdintasun, merezimendu, gaitasun, publikotasun eta azkartasun printzipioak betez, lanpostua berehala bete ahal izateko bitarteko izendapen baten bidez.

Hura amaituta, eta epaimahaiaren proposamenaren arabera lan poltsa eraturta, lehendakariak 2024ko apirilaren 4an emandako ebazpenaren bidez onetsi zen, eta, deialdia arautzen duten oinarriak betez, lehen hautagaia izendatzea proposatzen zen, puntuazioaren arabera. Hautagai horrak uko egin zion, eta elkarteak bidalitako espedientean jasota dago uko egin zuela.

Bigarren hautagaiak, María Lourdes Miranda Lafuente, izendapen proposamena onartu du, eta epearen barruan aurkeztu ditu sartzeko baldintzak eta alegatutako merezimenduak egiaztatzen dituzten jatorrizko agiriak, bai eta gainerako agiriak ere izendapena egin aurretik.

Hori guztia oinarri hartuta, 2024ko apirilaren 10ean, elkarteko lehendakariak proposatu zuen bitarteko izendapena egitea Añana, Lagran eta Harna udaletako elkarteko idazkari kontuhartzaile lanpostua betetzeko.

Bat etorri 128/2018 Errege Dekretuaren 53. artikulua xedatutakoarekin:

1. Ezinezkoa denean gordetako lanpostuak estaturako gaikuntza duen toki administrazioko funtzionarioen bidez betetzea, eta urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuak 10.4 artikuluan xedatutakoa gorabehera, toki erakundeek autonomia erkidegoari proposatu ahal izango diote, betiere berdintasun, merezimendu, gaitasun eta publizitate irizpideak betez, bitarteko funtzionario bat izenda dezala, A1 azpitaldera sartzeko eskatutako tituluduna.

Edonola ere, kontuan izan behar da zer xedatzen duen Estaturako gaikuntza duten toki administrazioen funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuak 54. artikuluan:

“Baldin eta behin-behineko edo bitarteko funtzionario batek betetzen badu lanpostua, hura lanpostutik kentzea ekarriko dute, automatikoki, honako hauek: lanpostua behin betiko betetzeak, kapitulu honetan jasotako kasuetan titularra lanera itzultzeak edo behin-behineko izendapen bat, zerbitzu eginkizunetakoa edo metaketa bidezkoa, egiteak”

Bat etorri Enplegatutako Publikoaren Oinarriko Estatuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak 10.4 artikuluan xedatutakoarekin, bitarteko funtzionarioaren izendapenetik hiru urte igarotakoan amaitu egingo da bitarteko harremana.

Estaturako gaikuntza duten toki administrazioen funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuak 53. artikuluan xedatutakoari jarraitu zaio.

128/2018 Errege Dekretu horren hirugarren xedapen gehigarrian agindutakoa betez, eta Arabako Foru Aldundiaren Gobernuari, Antolaketari eta Araubide Juridikoari buruzko 10/2023 Foru Arauaren 24. artikuluan jasotzen diren eskudantzien ondorioz, hau

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Maria Lourdes Miranda Lafuente izendatzea, 2024ko otsailaren 16tik aurrerako ondorioekin, Añanako, Lagrango eta Haraneko Udalen elkarteko idazkari kontuhartzaile lanpostua bitarteko gisa betetzeko, hura legez bete arte, Estaturako gaikuntza duten toki administrazioen funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera, behin betiko izendapenaren bidez, behin-behineko izendapenaren bidez, zerbitzu eginkizunen bidez edo metaketaren bidez.

Bigarrena. Foru agindu hau jakinaraztea Añana, Lagran eta Harana udalen elkarteari eta Eusko Jaurlaritzaren Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzari, eta hura ALHAOn argitaratzeko agintzea.

Hirugarrena. Jakinarazten den foru agindu hau behin betikoa da administrazio bidean, eta haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkez daiteke zuzenean Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegietan, bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik aurrera. Hori guztia, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. eta 124. artikuluetan eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 46. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko apirilaren 17a

*Lurralde Oreka eta Lurralde Antolamenduaren Saileko foru diputatua*  
**ANARTZ GORROTXATEGI ELORRIAGA**

*Lurralde Oreka zuzendaria*  
**LAURA PEREZ BORINAGA**